



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2014KO URTARRILAREN 10EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2014.01.10.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and.  
Ander Almandotz Indakoetxea jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mikel Leiza Etxeberria jn., eri dagoelakoz.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Fco Javier Larrechea Goñi jn: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-PDRko proiektuen berri.
- 4.-Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egindako bileraren informazioa.
- 5.-Liztor beltzari buruzko proiektua.
- 6.-2014ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2013ko azaroaren 29an eta abenduaren 17an egindako bileren aktak ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DITUZTE.

### **2.-FCO JAVIER LARRECHEA GOÑI JN: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Fco. Javier Larrechea Goñi jaunak Arrata alderdian haritz amerikanoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 175 B. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Fco. Javier Larrechea Goñi jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **3.-PDR-KO PROIEKTUEN BERRI.**

PDRtik diru laguntza lortu da wifinet proiektua martxan jartzeko eta Bide Berdean hainbat obra egiteko (seinalizazioa jartzeko eta aisialdi guneak sortzeko).

Kontuan izanik Bide Berdearen seinaleak jarri direla Bertizko Partzuergoaren bidez, orain diru gehiago dago bertze lan batzuetan gastatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Baserriko bideak berreskuratu eta seinalizatzeko proposatzea.

### **4.-BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK EGINDAKO BILERAREN INFORMAZIOA.**

Koldobike Gorostiza andreak azaldu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean egindako bilera. Bertan 2014ko aurrekontuak onartu ziren baino udalekuetarako 6.000,00 euroko ekarpena ez zen finkatu.

Bertzalde La Caixak 8.000,00 euroko diru laguntza eman duela aipatu du.

Kopurua hau horrela banatzea erabaki zen:

- 1.000,00 euro fisioan.

-1.000,00 euro ortoprotesikoetan

-1.000,00 euro berdintasun programan.

-1.000,00 euro gurasoentzako.

-4.000,00 euro, gizarte proiektuetan.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

### **5.-LIZTOR BELTZARI BURUZKO PROIEKTOA.**

Liztor beltzaren presentzia handia da Bortzirietan.

Horren aurka zerbaitek egitea pentsatu da eta gaia lantzeko 3 edo 4 bolondres behar dira. Hauek behar duten azpiegitura guztirekin lanean ariko ziren (materiala, tertxoak, aseguruak...). Hori estaltzeko eta behar den publizitatea egiteko aurreikusitako 420,00 euroko aurrekontua udal bakoitzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako aurrekontua onartzea eta Arantzako Udalan proiektu horretan parte hartzea.

### **6.-2014KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.**

Gaia hobeto aztertzeko mahai gainean utzi da.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

### **7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 81tik 84 arte eta 2014ko 1. ebazpena).

### **8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

### **9.-BIBIANA MICHELENA TABERNA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Bibiana Michelena taberna andreak Barrazabal alderdian alertzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 270 A. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bibiana Michelena Taberna andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **10.-MIGUEL VERGARA ALMANDOZ JAUNAREN IDATZIA.**

Ikusirik Miguel Vergara Almandoz jaunak aurkeztutako idatzia, Arantzako ehiza kotoan sartzeko dauden baldintzei buruz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia hurrengo Batzorde Paritarioari jakinaraztea bertan aztertzeko.

### **11.-TOKI ENTITATEEK EUSKARA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik 2013. urtean Nafarroako Gobernuak ez duela Nafarroako toki entitateek euskara sustatzeko diru laguntza deialdirik egin, eta kontuan harturik Gobernuaren aurrekontuan diru sail hori badagoela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuko Euskarabideari eskatzea toki entitateek euskara sustatzeko diru laguntza deialdia berehala egin dezala, aurrekontuan onartua duen diru saila exekuta dezala, eta 2013. urtea amaitu baino lehen prozedurari hasiera eman diezaiola.

2) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Euskarabideari jakinaraztea.

### **12.-NAFARROAKO UDALERRI EUSKALDUNETAKO LIBURUTEGI ETA OSASUN ETXEETAN HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESKAERA.**

Legeak herritarrei administrazio publikoarekin euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen badie ere, Nafarroako udalerrri euskaldunetako osasun etxe eta liburutegietan ez da euskarazko



zerbitzurik bermatzen. Errealitate horrek, herritarren hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, euskararen normalizazioa kaltetzen du.

Legeari erreparatzen badiogu, Foru hobekuntza,13/1982 lege organikoaren 9.artikuluak dio euskara ofiziala izango dela Nafarroako zonalde euskaldunetan. Eta Nafarroako 18/1986 Euskararen Lege Foralaren 6.artikuluak herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaiela dio.

Gure udalerrria UEMAn sartuta dago, eta gure herritarren %70etik gora euskaldunak dira. UEMAn eta gure Udalaren helburu nagusietako bat da gure herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Tartean sartzen da osasun-zerbitzua eta liburutegietako zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Gune horietan zerbitzu euskalduna bermatetik urruti gaude oraindik, izan ere, oraindik oztopo asko ditugu euskaraz artatuak izateko.

Horiek horrela, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) UEMAk Nafarroako Parlamentuari egindako eskaerak bere egitea, konkretuki, hurrengoak:

#### OSASUNBIDEARI:

-Eremu euskalduneko osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzea. Lehentasunez pediatra, mediku eta jendaurrean lan egiten duten langileei.

-Eremu euskalduneko emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuei plantilla organikoan eskakizun elebiduna jartzea.

-V1 jakite maila eskasa dela ikusirik, lanpostu horietan V3 jakite maila eskatzea.

-Euskarazko plazen ordezkotetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.

-Gainerako arloetan, urratsak ematen hastea: paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzorduak jartzeko SMS-mezuak, baja-agiriak...

-Urgentziazko Zerbitzuetako langileen hizkuntza perfilak zehaztea.

#### KULTUR SAILARI:

-Eremu euskaldunean profil elebiduna ez duten liburuzainen lanpostuei profil elebiduna jartzea.

-Profil hori C1 mailakoa izatea.

-Dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainen kasuan, horiendako euskalduntze plan bat diseinatzea.

-Eremu mistoko zenbait lanposturi profil elebiduna paratzea; batez ere liburuzain bat baino gehiago dauden liburutegietan.

-Plaza elebidunen ordezkotetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.

-Liburuzain guztiei, oro har, euskara ikasteko erraztasunak ematea.

-Nafarroako Gobernuak Liburutegien Sareko udalekin eginak dauzkan hitzarmenetan hizkuntzaren erabilerari buruzko irizpideak ezartzea: liburu eta materialak hornitzea, paisaia linguistikoa, informazio-orriak, aplikazio informatikoa...

2) Gure udalerrian herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko urratsak emateko plangintza eta epeak zehaztea.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

3) Eskaera horiek Nafarroako Parlamentuari, Kultura eta Osasun sailtako kontseilariei bidaltzea. Parlamentuari bi arlotako eskaerak eta Kultura eta Osasun sailari bakoitzari dagozkionak.

### 13.-UDALEKO ASEGURUEI BURUZ.

Alkateak planteatu du Udaleko aseguruak aztertu eta berritu, baino lehen aurrekontu berriak eskatzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2014ko otsailaren 6ko bilerarako aurrekontuak eskatzea Mapfre, Allianz eta Lagun Aro aseguruiei.

### 14.-ESTITXU IPARRAGIUIRRE MADARIAGA ANDREAREN IDATZIA.

Ikusirik Estitxu Iparragirre Madariaga andreak aurkeztutako idatzia, medikuaren etxean berriro ere ura sartu dela adieraziz leiho eta ate batzuetatik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aurrekontuak eskatu hondatuak dauden leiho eta atek aldatzeko.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.



